

MUGERREKO HEZEGUNEAK

Pleitagunea hedatzeko proiektua Mugerreko Bathes deituriko ordoki hezeen eremuan herritarren eta elkarte ekologisten oposizio azkar batekin talka egiten du. Azken horiek lehentasuna duten gune hezeen artifizializazioa salatzen dute. Hirigune elkargoak eta Mugerreko herriko etxeak beraien aldetik hedapen hori tren garraioarentzat eta jardue-
ra ekonominkoarentzat ezinbestekotzat jotzen dute. EHBaiarentzat dosierra hori ondoko urteetan aurre egin beharko diegun arazoei begira adierazgarria da. Aldaketa klimatikoaren aurkako borroka baliabide naturalen eta berezikiago lurra eta uraren erabilpenean gogoeta sutsu bat ukatea eskatzen du eta hautuak egitea behartzen gaitu, horiek erabilpenean gatazkaren sinonimo bilakatu daitezke.

Erronka hirukoitza baten aitzinean gara:

- **Koherentzia betebeharr** bat izatea 2021ean bozkatua izan den Lurraldeko Aire-Energia-Klima Planoarekin (PCAET deritzona) hartutako trantsizio ekologikoari begirako engaiamenduekin.
- **Garapen ekonomikoa lurraldearen trantsizioaren proiektu zabalago batean sartzeko beharra**, sozialki zuzena eta jasangarria, Ipar Euskal Herria etorkizuneko erronkei prestatzen duena zaurgarriagoa egin ordez.
- **Gobernantzaren inguruko desafioari** erantzutea hartuko diren erabakiek ez dezaten gure gizartea zatitu eta eginen diren arbitrageak erraztuak izan daitezten gure elkarte sarearen eta sare ekonomikoaren proposamenekin eta mobilizazioarekin.

Gogoratu dezagun Pleitagunea hartzen duen elkar aditutako antolaketa zonaldea (ZAC deritzona) 1988an sortua izan dela ZAD baten eremuan. Eredu hori 1974ean finkatua izan zen prefeturaren dekretu baten bidez Lehentzen eta Mugerren kokatua den 102 hektareako lur zolu batean. Gaur egun, pleitagunea lurrez bete eta erabilia den zonalde batetaz osatua da jadanik, eta 13 hektareako eremu naturala batetaz. Société d'Équipement des Pays de l'Adour (SEPA) enpresak bultzatzen duen egungo pleitagunearen hedapen proiektuak 13 hektarea naturala horiek ukitzen ditu. Obra horiek justifikatzeko bi egitasmo aipatuak dira: tren garraio terminalen sorrera eta hedapena, eta gunean jadanik kokatua den baina bere eremua handitu nahi duen Enovis enpresaren kokapena. Bi egitasmo horiek helburu ezberdinak dituzte: tren garraioaren garapena garraioaren karbono murrizte asmo batean kokatzen da horrek A63 autobidean bide garraioa txikitzea bultzatuko lukeelarik; Enovis enpresaren kokapenak leku jakin horretan ez dio

berez behar zehatz bati erantzuten, gainera lur eremu horretan lehentasunezko eremu hezeak aurkitzen direla. Eremu horien suntsitzea debekatua da Aturriko Uren kudeaketa eta antolaketa eskemaren bidez 2022 urtetik.

Bere erabakia errazteko, aurretik aipatutako hiru erronkak aintzat hartu ditu EH Bai.

Kolektiboki trantsizio ekologikoaren arloan hartu ditugun erabakiekin koherentzia beharra

Eremu hezeek laguntza handia ematen diete ekosistemari. PCAET diagnostiko txostenak hainbat alde zehazten ditu.

Arrazoi horiengatik, PCAETaren "Estrategia" atalak dio Hirigune Elkargoa engaiatzen dela "trantsizio ekologikoa eta energetikoa sartzeko komunitatearen intereserako eginak diren operazioetan". [...] *Bestalde, eta neutrotasun karbonoaren helburua izanki, lurretan eta eremu naturaletan (eremu hezeak eta ohineak) karbonoa metatzeko lurraldeak duen gaitasunean kokatzen da erronka nagusia eta epe luzekoa. Horiek horrela eta kontuan hartuz etorkizunari begira aurreikusitako diren datu demografikoak, lurraldearen antolaketa eta lurren artifizializazioaren txikitze zorrotza, eta baita artifizializatuak izan diren lurren berreskuratzea laborantza lurrak edo eremu naturalak egiteko palanka nagusiak dira. Lur eremuen neurritasuna lurraldearen koherentziarako eskemetan (SCOT deritzona) jarri beharreko lehentasuna izanen da elikagaierako lurrak, eremu hezeak eta oihaneak "sakralizatzeko". Eremu horiek egokiak baitira karbonoa atxikitzeko eta uraren ziklo handia erregulatzeko.*

Engaiamendu horrekin bat eginik SCOTaren Antolaketa estrategikoaren proiektuak eremu hezeak karbonoaren bilketarako gune garrantzitsuak egitea proposatzen du, horiek babestuz eta beraien funtzionamendu ekologiko ona ziurtatuz.

Azkenik aipatu dezagun neutrotasun karbonora iristeko PCAETak karbono ixurtzeen murriztea aurreikusten duela baina baita biltzeko eremuaren handitzea. Bilketak 2030ari begira %3z eta 2050ari begira %8z emendatu beharko luke lurraldearen ixurtzearen %54a estaltzeko.

Gogoratu dezagun PCAET 2021eko ekainaren 19an bozkaturia izan dela bozen %98a baino gehiago lortuz: engaiamendu horien errespetua beraz garapen proiektu orori inposatua zaio. Pleitagunearen hedapen egitasmoak ez du bermatzen PCAETaren baitan hartu engaiamenduekin bat egiten duenik:

- Pleitagunearen hedapenak bioaniztasunean ekar litzazken kalteak ikusirik Aturriko SEPA enpresak eskatutako baimen bereziak, interes publikoari begira garrantzitsutzat eman bada ere, Naturaren Babeserako frantses Kontseilu Nazionalaren (CNPN) aurkako iritzia jaso du. Azken horrek konpentsatzeko proposatuak diren neurriak ditu gehien bat kritikatu. Hirigune elkargoak CNPNen gomendioei

egin erantzunetan oinarriturik prefetak baimen berezia eman du (CNPN iritzia jaso gabe).

- Karbono bilketari dagokionez ez dakigu iragarritako helburuekin bat egiten duenik, ez eta ere pleitagunearen hedapenak ze heinetan eragingo liokeen.
- ENOVIS enpresaren finkapenerako aterabide alternatiboa ez dirudi sakonki aztertua izan denik (adibidez jadanik artifizializatua den Salines auzoko eremua).

Garapen ekonomikoa lurraldeko trantsizio proiektu zabalago batean sartzeko beharra

Pleitagunearen hedapena zahartua den garapen ekonomiko batean oinarritzen da. Zentroa jarria izan den ZAD (eta ondotik ZAC) eremuaren perimetroa 1974ean marraztua izan da. Garraio zentroa baimentzen duen "Uraren Legea" Prefetaren dekretua 2000 urtekoa da. Proiektuaren legezkotasuna defendiatzeko testu horiek aipatzen ahal badira ere, gure garaiko erronkekin bat egiten duen garapen politikoa defendiatzeko zaila da horietan oinarritzea.

- Klima beroketaren eraginez euriketa handien gertakizunak biderkatuko diren testuinguru batean Ipar Euskal Herrian gertatuko diren uholdeak saihesteko, eskualdeak eskatu AcclimaTerra txosten zientifikoak uholdeen ordoki handiak finkatzea aholkatzen du. Ikusiz pleitagunearen hedapenarekin alderantzizko hautua egiten dela gune hezeak desagertaraziz, eta jakinez aldaketa klimatikoaren eragina ez zela kontuan hartua 2000 urteko "Uraren legean", gai honetan egiten ari diren inpakto edo eragin ikerketak erabakigarriak izanen dira. Arduragabekeria da obrak hastea ikerketa horien emaitzak ukan gabe. Pas de Calais edo beste toki batzuetan gertatzen diren uholde etengabeak abisua jarri beharko ligukete artifizializazioak ukan dezakeen ondorioei begira.

- Proiektuak eremu artifizializazioa aurreikusten du eta ondorioz Zero Artifizializazio Garbiaren (ZAN deritzona) helburuari begira ondorioak baditu. Hiri garapena ezin da gehiago egin lur eremuek ematen dituzten aukeren arabera, lurraldeen arteko lehia baten logikarekin. ZANaren finkapenak lankidetzat bat eskatzen du eta ildo horri heldu behar dio idazten ari den SCOTak, barnekaldearen aldeko oreka ekonomikoa bultzatzeko aukera hartuz. EHBaiek uste du pleitagunea bezalako egitasmoa Iparralde mailan eztabaidatua izan behar duela.

- Enovisen kokapenak enpleguak sortzeaz gain ekonomikoki onurak ekarriko lituzke. Argudio horiek indartsuak dira eta kontuan hartzekoak dira: kalitatezko enpleguaren garapena bistan dela erronka nagusi bat da. Baina, lehenago aipatu bezala, Enovis eremu alternatibo batean kokatzea seriozki aztertu beharreko gaia da. Horrez gain zehaztu beharko lirateke, zenbakiz onura ekonomikoak eta humanoak eta ikuspegi zabalago bati begira sortu dezakeen kostuarekin parekatu, adibidez gunearen segurtasun hidraulikoa, azpiegituren eraikuntza, edo eremu hezeen

suntsitzearekin ekosistemak ekar lezakeen zerbitzuen galtzea. Epe laburreko onura ekonomikoak herritarrentzat eta elkargoarentzat aski fite finantza mailan osin bat bilakatu daiteke.

- Inkoherentzia estruktural batek bultzatzen ditu bai Hirigune Elkargoa eta baita Mugerreko herriko etxea ere ekologikoki jasangarria ez den proiektu bat babes-tea. Izan ere, Enovis lur heze babestu horietan finkatuz ekonomikoki ekarpenak ekartzen ditu lurraren zergei esker. Mugerreko herriko etxeak ez balu Barthes-en artifizializazioa onartzen, Iparraldearentzat onuragarria izango zen baina Mugerrek diru sartzeak galduko lituzke. EHBaiek fiskalitate ekologikoa kudeatzeko eskumena aldarrikatzen du sozialki eta ekologikoki jasangarria den trantsizio baten aldeko konpentsazio eta birbanatze neurriak indarrean jarri ahal izateko.

- Orokorkiago gas ixurtze eta bioaniztasunaren mantentzearen aldeko engaiamenduak errespetatzen dituen politika batek epe ertain eta laburrean ekar ditzazken etekinak ikaragarriak dira geldirik egotearen politikarekin alderatuta, bereziki herritar xumeentzat ezingo baitute sortuko diren kalteei egokitu. Ezin dugu ukatu hala ere horrelako politika batek ez dituela bakarrik etekin partekatuak ekarriko: ekonomiaren norabide berriarekin sektore batzuk kaltetuak izanen dira ere. Norabide horren eraginak aitzinetik begiratu behar dira, eta ukituak izanen diren sektoreetako langileentzat laguntza martxan jarri behar da. Lehenago aipatutako konpentsazio eta birbanatze neurrietatik at, EHBaik lurraldearen trantsizioa gauzatzeko erronka nagusia izanen den formakuntza osoki bermatzeko beharrezkoak diren eskumenak aldarrikatzen ditu ere.

Gobernantza desafioa

Enpresa handi baten instalazioak justifikatzen al du gizarte jasangarriago baten aldeko engaiamenduak arriskuan jartzeak? Eta engaiamendu horien artean nola bateratu ezinbestekoa den garraioen karbono ixurtze murriztea, eta bioaniztasunaren eta resiliantzaren errespetua uholdeen arriskuari begira, hau ere bestea bezain garrantzitsua delarik? Mugerreko pleitaguneak sortzen dituen gogoeta horiek beste molde batzuetan hainbat alditan berriz ere agertuko zaizkigu datozen urteetan: uraren inguruko erabilpen gatazkak, energia berriztagarrien hedapenak inguramenean izanen duen eragina, etabar...

Gizarteak gai horien inguruan gatazkak izatea saihesti nahi badugu, aldez aurretik ikusi eta gogoetatu behar ditugu eta bereziki kontraesankorrak diren interesen artean arbitramenduak egiten ikasi behar dugu. Zoritzarrez proiektu honekin ez da hala egina izan.

- Hirigune elkargoko kontseilu eragilea eta kontseilu iraunkorraren artean eztabaida eta delibero asko izan bada, instituzioek ez dute bilkura publikorik egin. Antolaketa baimena "bide elektronikozko parte hartze publiko" prozedura baten ondortik hartua izan da. Egitea behartuak diren prozedura da baina tarrapatu egina izan da eta ez du eztabaidarako biderik ireki.

- zaila da proiektu horri buruzko iritzi argi bat izatea zeren informazio oso murrizak ditugu: "PCAETaren helburuen errespetuari begira zertan gara? Zein dira Enovis Salines-etan jartzeko dauden trabak? Zein dira etekin (edo kostua) ekonomiko errealak Enovisen kokapenari begira? Proiektu horrek ze heineko uholde arriskua suposatzen du? Ze eragin izanen du Iparraldeko beste herriei begira Zero artifizializazio garbia legearen baitan? EHBaien ustez gizarte zibilari instituzioekin batera eztabaida horietan parte hartzeko aukera ireki behar zaio.

Erresalbu guzti horiek ikusirik, EHBaien iritzia honako hau da:

- Gaur egun ditugun elementuak ikusirik, **ez dugu proiektu osoa sustengatzen**, lur artifizializazio bat suposatzen baitu, zati bat (Enovis) lehentasunezko hezegunean delarik.
- **Enovis beste gune batean ezartzeko aukerari buruzko ikerketa** sakon bat eskatzen dugu.
- Garraioaren deskarbonizazioaren ezinbesteko xedea lukeen **trenbideko pleita proiektua sustengatzen** dugu, betiere uholde eta ingurumen azterketak bururatu eta baimen administratibo baimenen lortzeko baldintzekin, bereziki bigarren faserako.
- **Gaiari buruzko eztabaida garden bat antolatu behar dela uste dugu**, jendarte zibilak bere proposamenak garatzeko aukera izan dezan.



Bai